

F **ESPAINIAKO KOPA.** Osasuna, Real Union eta Alaves final-zortzirenetan dira. Bidean Lemoa, Eibar, Racing, Athletic, Barakaldo eta Zaragoza geratu dira. Aurrerantzean ez da izango atsedenerako tarterik, hurrengo bi kanporaketak segidan jokatuko baitira.

Bista bikoitzarekin

Datorren astean itzuliko partida dutela kontuan hartuta jokatuko dute gaur Osasuna eta Real Unione

Asier Legarda-ereño | IRUÑA
Jon Ordoñez | IRUN

Espainiako Koparen final-zortzirenetan sartu hiru euskal taldeetatik bi aurrez aurre izango dira gaur Irungo Stadium Galen. Bigarren B Mailako Real Unione Lehen Mailako Osasuna hartuko du, baina, aurrekoetan ez bezala, kanporaketa hori bi partidetara jokatuko da, eta bi taldeek itzuliko partida jokatuko dute gaur zortzi Sadarren. Osasunan Ligan minutu gutxien jokatutako jokalariek dira, baina asmoa garbi dago: «Aitzakiarik ez da, hasieratik jokatuko dutenak Lehen Mailako jokalariek dira, guztiek jokatu dute Ligan», esan zuen atzo entrenatzaile mexikarrak. Final-zortzirenetara iristeko Osasunak Lemoa eta Eibar utzi ditu bazterrean, eta orain, titularrei atsedena emanenez, Ligan hasieratik aritu diren jokalarietatik bakarra jarriko du hasieratik: Patxi Puñal.

Real Unione, berriz, bere entrenatzailearen esanetan, «alaitasunez jokatuz» ekin nahi dio aurrean jarri zaion Lehen Mailako hirugarren taldeari. Aurretik Racing eta Athletic kanporatu ditu, eta irekitako ate bati bezala begiratzen dio kanporaketari.

Real Union-Osasuna

Txapelketa: Espainiako Kopako final-zortzirenetako joaneko partida.

Real Union: Arteaga, Iriarte, San Miguel, Labaka, Malo, Alberdi, Badiola, Llona, Zarzuelo, Kareaga, eta Sergio Francisco.

Osasuna: Unzué, Yanguas, Jusue, Josetxo, Paqui, Muñoz, Puñal, Gancedo, Palacios, De Carlos eta Gorka Brit.

Epalea: Megia Davila.

Lekua: Gal Stadium (5.000 ikusle).

Ordua: 20:15ean.



MIGUEL SOLA

Jaioteguna: 1957ko irailaren 29a.

Ibilbidea, jokari gisa: Txantrea, Athletic (1975-1978 eta 1979-1986), Alaves (1978-1979), eta Osasuna (1985-1995).

Ibilbidea, entrenatzaile gisa: Nafarroako 15 eta 17 urtez azpiko selekzioa, Osasunaren oinarritzko futbola (1997-2000), Osasuna (1996-1997), Txantreako kadeteak (2000-2001), Peña Sport (2001-2002) eta Real Union (2002...).

Aguirrengatik esandakoa: «Oso mutiko alaia zen, oso irekia, eta arrakastaren bila gogoz etorri zen. Arduratsua ere bai. Alaitasuna zerion, eta oso jato-»

rra zen. Mutiko paregabea zen Aguirre. Edozein taldetan jokatze moduko maila zuen».

Gaurko agurra: «Ez dugu ezer hitz egin, baina aurretik elkar agurtuko dugu, eta beste noizbaiterako jarriko dugu hitzordua. Sentimenduak alde batera utzi behar ditugu gaur partidaren aurretik, gure arretera desbidera ez dadin».

Bi lagun, aurrez aurre

ENTRENATZAILEEN KONTUAK. Osasun 1986-1987an taldekide izandako Miguel Sola eta Javier Aguirre aurrez aurre izango dira gaur, Stadium Galeko aulkietan

Asier Legarda-ereño | IRUÑA
Jon Ordoñez | IRUN

Javier Aguirre eta Miguel Solak aspalditik ezagutzen dute elkar, 1986ko Mexikoko Munduko Koparen ostean, Fermin Ezkurra presidentearen eskutik Osasunak Javier Aguirre erdilari mexikarra fitxatzea erabaki zuenetik, hain zuzen. «Oso mutiko alaia zen, oso irekia, eta arrakastaren bila gogoz etorri zen. Arduratsua ere bai. Alaitasuna zerion, eta oso jatorra zen. Paregabea zen», azaldu zion atzo EGUNKARIARI Miguel Sola Real Unione-ko entrenatzaileak. Aguirre Iruñera etorri zenerako Miguel Sola nafarra ere Osasunaren ze-

goen, Athleticetik eta Alavesetik Iruñera itzuleran. Gaur, taldekide egin zituen kirolak, futbolak, aurrez aurre jarriko ditu: Osasunaren aulkian mexikarra, Real Unionen aulkian nafarra.

Hartu-emanaren berehala izan zuten 1986. urte hartan gaurko bi protagonistek. Urban, Pedersen eta Robinson atzerritarrekin ez bezala, Aguirrerekin ez zen hizkuntza arazorik izan, eta «mexikarrarekin komunikatzea oso erraza» zela esan zigun Solak. Aspaldian ez dute, ordea, elkar ikusi. Aguirrek ez zuen zorte handirik izan Osasunaren jokari gisa. 11. jardunaldian eskuin hankako tibia hautsi zuen Sportingen aurkako partida batean Ablanedorekin tupust eginda,

eta espero baino lehenago bere jokoa erakutsi ezinik Mexikora itzuli behar izan zuenez, bien arteko harreman ona zertxobait epeldu egin zen. «Denbora eta urruntasunarekin harremana hoztu egin zen. Joan ondoren eskutitzez mantendu genuen harremana, baina orain Osasunako entrenatzaile denetik ez dut ikusi», argitzen zuen Solak. Real Unione-ko entrenatzaileak bi lagun arteko agurra iragarri du gaurko. Beste noizbaiterako geratuko direla ere esan du, «sentimenduak alde batera utzita», baina biek, elkar ikusiko dutenean, oroitzapen ugari izango dute buruan.

«Solarekin eta Martin Gonzalezekin hitz egin ohi nuen tarte-

ka telefonoz, baina elkar ikusteko aukerarik ez genuen izan. Egia esateko, zelaian ikusitakoan besarkada bat emateko gogo badut, lagun ona zen», esan zigun Javier Aguirrek; bere begiek denbora honetan harremana epeldu izana bizitzaren legea dela adierazten ziguten. Tristura puntu bat ere nabari zaio mexikarrari: «Real Unionekin Promesasen aurka jokatu zuenean ezin izan nuen Taxoarera joan, eta denboraldi-aurrean Tafallan jokatu genuenean bere semea hurbildu zitzaidan. Semeak Peña Sporten jokatzen du, eta esku-minak eman zizkidan bere familiaren partez. Nik ezagutu nuenean umetxo ilehori bat besterik ez zen, eta bat bate-